

# Aditzaren mailegaketa euskararen diakronian: prozesu morfonologiko eta sintaktikoak

(Verb borrowing in the diachrony of Basque: morphological and syntactical processes)

Mounole Hiriart-Urruty, Céline

EHU/UPV. Filologia eta Geografia-Historia Fak. Unibertsitateko  
Ibilbidea, 5. 01006 Vitoria – Gasteiz  
fvbmohic@ehu.es

Jaso: 2008.01.11  
BIBLID [1137-4454 (2008), 23; 415-436] Onartu: 2008.09.13

---

*Euskarak bere historian aditzak mailegatu dizkie inguruko hizkuntzei: latinari, lehenik, eta gaztelera, gaskoiera eta frantsesari geroago. Lan honetan, aditz mailegatuek pairatu dituzten egokitzapen morfonologiko eta sintaktikoak dira aztergai. Gure ustez, aditz mailegatuetan, ikusten diren txandaketak errazki esplikatzen ahal dira kontuan hartzen bada euskara erromantze desberdinez inguratua izan dela eta berrantolaketak kasik eten gabeak izan direla erromantze horien aditz paradigmatan beretan.*

*Giltza-Hitzak: Mailegutza. Morfologia eta sintaxia historikoa. Tipologia. Sistema dinamikoa.*

*A través de su historia el euskara ha tomado préstamos verbales de las lenguas de su entorno: del latín primero, y del castellano, gascón y francés más tarde. En este trabajo son objeto de estudio las adaptaciones morfológicas y sintácticas que han sufrido estos verbos prestados. En nuestra opinión, las alternancias que de un texto a otro se observan en los verbos de préstamo pueden explicarse fácilmente si se toma en consideración que el euskara ha estado rodeado de distintas lenguas romances y que las reorganizaciones en los paradigmas verbales de dichos romances han sido casi continuas.*

*Palabras Clave: Importación. Morfología y sintaxis histórica. Tipología. Sistema dinámico.*

*Au cours de son histoire l'euskara a emprunté de nombreux verbes aux des langues de son entourage : au latin premièrement, et à l'espagnol, au gascon et au français plus tard. Dans ce travail les adaptations morphologiques et syntaxiques qu'ont souffert ces verbes empruntés sont l'objet d'une étude. A notre avis, les alternances que l'on observe d'un texte à l'autre chez les verbes empruntés peuvent s'expliquer facilement si l'on considère que l'euskara a été entouré de différentes langues romanes et que les réorganisations dans les paradigmes verbaux dans ces langues romanes même ont été presque continus.*

*Mots Clé : Importation. Morphologie et syntaxe historique. Typologie. Système dynamique.*

## SARRERA

Euskarak bere historian gauza ainitz mailegatu die inguruko hizkuntzei, latinari lehenik, eta geroxeago gaskoinari, gaztelerari eta frantsesari. Katagoria gramatikal desberdinetako elementuak hartu ditu hala nola izenak, adjektiboak, aditzak. Azken honi buruz, eztabaida handiak izan dira hizkuntzalaritza teorikoa baizik eta hizkuntzalari zenbaitek aldarrikatzen zutela aditzak ezin zitezkeela mailega (Morasvic 1978). Geroztik, besteak beste, Campbell & Harris (1995), Thomason (2001), Wolgemuth-ek (2007) erakutsi dute aditzak mailegagarriak direla, nahiz eta hizkuntza batetik bestera edo aditz batetik bestera hizkuntza berean mailegatze prozesuak desberdinak izan litezkeen.

Euskarak, latinari eta latinetik eratorri hizkuntza erromantzei aditzak mailegatu dizkien ber, aditzaren mailegagarritasunaren alde egiten du. Azpimarratu behar da bi bide nagusi baliatu dituela aditzen mailegatzeko orduan: (i) partizipioak mailegatu ditu, hau baita bide arruntena: lat. *auditum* > eusk. *aditu* ; (ii) mailegatu aditza [izen + aditz arin] egituraren bidez moldatu du: gask. *dança(r)*, fr. *danser* > *dantza egín* ; lat. *deliberāre*, gask. *delibera(r)*, fr. *délibérer* > *deliberoa hartu...*

Idazki honetan lehenbiziko bidea baizik ez dugu aipatuko, erran nahi baita, partizipioen mailegaketa. Jarraian, lehenbiziko zati batean, mailegu horien euskararen barnean egokitzeko gertatu diren prozesu morfonologikoak aztertuko ditugu eta entseatuko gara testuz testu, eta garai batetik bestera partizipioen forma agertzen diren txandaketen azaltzen. Bigarrenik, partizipioen mailegaketaren prozesu sintaktikoak aztertuko ditugu.

## 1. PROZESU MORFONOLOGIKOAK

### 1.1. Orain arte errana izan dena

Mitxelena lehenbizikoetarikoa izan da aditzaren mailegaketa aipatu duena. Maileguen egokitzapen morfonologikoaz den bezenbatean, erraten du partizipio gehienetan *-atu* forma orokortu dela. Haren ustez, *-atu*-ren hedatzea biziki naturala zaio euskarari, eratorpenean *-e*, *-o*, *-a* > *-a* bilakatzen direnaz geroz:

...Lo único que normalmente ha entrado en la lengua y ha tenido que sufrir alguna acomodación son las formas nominales: participio (con el radical) y, muy en segundo término, sustantivo verbal. Se descubren tendencias muy diversas. **Tenemos, por una parte, una especie de generalización en los participios de la primera conjugación latina muy natural porque en los participios vascos derivados de nombres hay *-a-tu* cuando se trata de temas en *-e*, en *-o* y en *-a*:** *bark-hatu* 'perdonado' < PARCERE, *bazkatu* 'apacentado' < PASCERE, *bedei(n)katu* (or. *Benedikatu*) < BENEDICERE (cf. Su opuesto *maradi-* / *madarikatu* < MALEDICERE), *endel(e)gatu*, etc. 'entendido' < INTELLEGERE, S *izkiribatü* 'escribir' < SCRIBERE. Por otra, hay participios en que el suf. *-tu* se ha agregado a un tema en consonante: *aphaindu* 'preparado' 'adornado' (cf. Rom. *Apañar*), M *ogendu*, traducido 'entortar, encorvarse', de donde el general *hoben*, (*h*)*ogen* 'engañado' 'ofensa', injuria, falta', < OFFENDERE. Sobre el part. latino se han formado *deit-*

*hu* 'llamado' [<rom. \**deito*< lat. DICTU], *V otu* 'rogado' < VOTU. (Mixelena [1974] 1987: 215) (belztura guk emana da).

Trask-ek (1997) Mitxelenaren gisara, *-atu* formaren hedatzea eta orokortzea aipatzen du, Mitxelenak erabili pareko adibideak harturik:

Basque borrowed verbs from Latin in the form of their perfective participles, such as *aditu* 'hear, understand' < AUDITU and *jostatu* 'play' < IUXTATU. Romance verbs have continued to be borrowed with the same suffix: *pentsatu* 'think' < Sp *pensar*, *sentitu* 'feel' < Sp *sentir*, *erreibindikatu* 'claim' < Sp *reivindicar*. In spite of occasional exceptions like *sentitu*, there has long been a marked tendency to generalize the form *-atu*, as in *bedeinkatu* 'bless' (<\**benedikatu*), from Lat BENEDICERE, participle BENEDICTU, and *eskribatu* 'write' < Sp *escribir* (Trask 1997: 214).

Beherago ikusiko dugun bezala, uste dugu Mixelena eta Traskek aipatzen dituzten adibideetan beste arrazoin bat izan litekeela *-atu*-ren ereduaren hedatzea esplikatzeko: partizipio horiek *-TTus* motatakoak dira eta euskarak ezin zitzakeen onart, ziren bezala, arrazoin fonetikoengatik. Bestalde, Traskek aipatzen dituen salbuespenak (*sentitu*) ez bide dira salbuespenak. Entseatuko gara erakusten partizipioen forma desberdinek erregela zehatzak dituztela oinarrian, erromantzearen barneko erregela morfologikoak direnak. Uste dugu gehienetan euskarak erromantze desberdinen patriiak segitu dituela, nahiz eta egokitzapea ez den beti erregularra. Prozesu horiek 1.4.3. zatian aztertuko ditugu.

Hualdek (2003) euskarak gaztelerari mailegatu aditzak aipatzen ditu eta proposatzen du gaztelerari ere partizipiozko forma mailegatzeko zaiola, jatorrizko partizipioaren atzikia *-do* > *-tu* bilakaturik euskararen barnean.

Several suffixes are systematically replaced by Basque endings. In the adaptation of verbs, the ending *-do* of the Spanish participle is replaced by *-tu*: *coordinado* > *koordinatu* 'coordinate', *justificado* > *justifikatu* 'justify', *despedido* > *despeditu* 'fire' (Hualde 2003: 15-71).

Bizkitartean, gazteleratik euskararako bidea baizik ez du aipatzen eta gaskoiera eta frantsesa aipatu gabe gelditzen dira. Haase (1992), hizkuntzalari alemanak baizik ez ditu aipatzen frantsesetik eta gaskoieratik hartu aditzak, baina, gure gustuko, sakontasunik gabe. Erraten digun gauza bakarra da frantsesezko eta gaskoierazko aditzek egokitzapen morfonologiko berak pairatzen dituztela euskararen sartzeko momentuan: fr. *-er* eta gask. *-a(r)* aditzek *-atu* hartzen dute, fr. eta gask. *-ir* aditzek berriz, *-itu*.

## 1.2. Lagina

Lan honen burutzeko ondoko testuetako partizipiozko formak<sup>1</sup> aztertu ditugu: Etxepare 1545: *Linguae Vasconum Primitiae*, Leizarraga 1571: *ABC edo Kristi-*

---

1. Maileguzen aditzoia eta aditz izena ere azter genitzaizkeen bokal txandaketaren berri emaitako, baina denbora faltarengatik partizipioen aztertzeari mugatu gara.

*noen instrukzioea ; Iesus Krist gure launaren Testamentu berria; Katexismaea ; Konfesionea ; Othoitza Eklesiastikoen Forma, Materre 1617: Doctrina kristiana, Etxeberri Ziburukoa 1627: Manual debozinezkoa, Axular 1643: Gero, Xurio 1720: Jesu-Kristoren imitazioea, Egiategi 1785: Filosofo Huskaldunaren ekheia, Xaho 1834-1852: Azti-begia eta beste izkribu zenbait. Bestalde, hantemenka beste testu batzuetako datuak ere hartzen ditugu gure datuen osatzeko.*

### 1.3. Datuak

#### 1.3.1. Datuak: txandaketak nagusi

Testu hauen azterketatik ateratzen dugun lehenbiziko ondorioa da txandaketak nagusi direla partizipioaren forman. Txandaketa horiek hiru maila desberdinetan kokatzen dira. Lehenik, testu berean ikusten ditugu. Adibide baten emateko, Xahoren testuan (1834), ustez partizipiozko forma bera izan behar zuten bi aditzek, alde batetik, *-atu* hartzen dute, eta bestetik, *-itu*:

Lat. part. *dēfensu*, inf. *dēfēndēre*, gazt. part. *defendido* (inf. *defender*), gask. part. *defendut* (inf. *defende(r)*) > eusk. *defendatu*.

Lat. part. *(de)pēnsu*, inf. *(dē)pendēre*, gazt. part. *dependido* (inf. *depender*), gask. part. *dependut* (inf. *depende*) > eusk. *dependitu*.

Gero, txandaketak ikusten dira euskalki batetik bestera: Leizarragan (1571) *eskribatu* forma aurkitzen dugu; Lazarragan berriz, *eskribitu* (1567). Leizarragan (1571) *prometatu* forma dugu, eta Hualde Maio (1855) eta Lizarragan (1777) *prometitu*.

Azkenik, txandaketak ikusten ditugu garai batetik bestera: Leizarraga (1571) eta Etxeparek (1545) *inprimitu* forma dute, Etxeberri Ziburukoa (1627) eta Axularrek (1643), ordenean, *inprimatzallea*, *inprimaturik* formak erabiltzen dituztelarik. Azkenik, Axular (1643) eta Tartas-ek (1672) *korrijitu* formak erabiltzen dituzte, gaur egun ekialdeko hiztun batek seguraski *korrijatu* bezalako forma bat erabiliko lukeelarik.

#### 1.3.2. Proposamena

Gure ustez, partizipioen mailegaketaren aztertzeke, gogoan izan behar dira latinetik erromantzera izan diren aldaketak aditz paradigmaren (ber)antolaketan: euskararen barnean diren txandaketa eta berrantolaketa gehienek hizkuntza erromantzeetako patroiak segitzen dituzte.

Estrategia desberdinak dituzten hizkuntza erromantze desberdinez inguratua izateak (gaztelera, gaskoiera, frantsesa), txandaketak sortu ditu partizipioaren forman euskalki batetik bestera. Bide beretik, ikusiko dugun bezala, hizkuntza erromantze bakoitzaren diakronian ere txandaketak ditugu partizipioen formetan eta uste dugu horiek ere ezegonkortasuna ekarri dutela gure aditz mailegatuetan. Azkenik, partizipio mailegatu guztiak ez dira garai berekoak eta hortik ego-

kitzapen morfologikoak ere ez (*benzutu...*), horrek erakusten baitu mailegu guziak ez ditugula maila berean tratatzen ahal.

Ikus ditzagun beraz, latinetik erromantzera aditzaren paradigmaren gertatu diren aldaketak eta berrantolaketak.

#### **1.4. Latinezko aditz paradigmaren berrantolaketa latin berantiarrean eta erromantzean**

##### **1.4.1. Latina**

Lehenik, latin klasikoak lau aditz klase zituen, eta hortik lau jokabide edo konjugazio: (1) -ĀRE aditzak, (2) -ĒRE aditzak, (3) -ĒRE aditzak, (4) -ĪRE aditzak. Haien partizipiozko eta perfektuzko formak desberdinak dira talde batetik bestera.

Lehen konjugazioko -ĀRE formek, -ĀTUM partizipio arizotonikoa dute, erran nahi baita azentua erroaren ondotik agertzen dela, kasu honetan partizipio atzikiaren bokalaren gainean: JOCĀRE > JOCĀTU. [a:] tonikoa perfektuan (-ĀVI) ere mantentzen da.

Bigarren konjugazioko -ĒRE forma gehienek, -ĪTUM partizipio rizotonikoa dute, erran nahi baita azentua erroaren gainean erortzen dela -ez eta partizipio atzizkian- (HABERE > HABĪTUM) eta [UĪ] perfektua dute. Dozena erdi bat aditzek -ĒTUM forma hartzen dute (DĒLĒRE > DĒLĒTUM).

Hirugarren konjugazioko -ĒRE formetan, txandaketa handiak ditugu. Forma asko posible dira. Aditz batzuek -ĪTUM partizipio rizotonikoa dute (eta [UĪ] perfektua): GEMĒRE > GEMĪTUM, VOMĒRE > VOMĪTUM. Beste batzuek -TUM forma tautiko atematikoa edo -SUM forma sigmatikoa hartzen dituzte erran nahi baita -tu edo -su atzizkia zuzenean gehitzen zaiola erroari, tarteko bokalik gabe, azentua erroan kokatzen delarik: TEXĒRE > TEXTUM, FALLĒRE > FALSUM.

Laugarren konjugazioko -ĪRE formek -ĪTUM partizipio arizotonikoa hartzen dute: DORMĪRE > DORMĪTUM eta -ĪVĪ perfektua dute (Laurent 1999: 24). Ikusten dugun bezala, 1. eta 4. konjugazioak dira erregularrenak nahiz eta bakoitzaren baitan ere salbuespenak izan<sup>2</sup>. Latinaren historian txandaketa handiak ikusten dira perfektuzko eta partizipiozko formetan, eta gainera bi hauek eraginak dituzte bata bestearen forman<sup>3</sup>. Perfektuzko formek txandaketak dituzte erroko

---

2. "All in all, CL perfects in -VĪ or -VĪ, reduplicated perfects, and lengthened-vowel perfects were to be found in all four conjugations, perfects in -SĪ in all but the 1<sup>st</sup>. Again, CL past participles in -ĪTUM and direct-suffix -TUM were to be found in all four conjugations, past participles in -SUM in all but the 1<sup>st</sup>" (Laurent 1999: 25).

3. "Close morphological links between the perfect (later preterit) and the past participle have existed from CL times on, with differences between the stems for the two verb forms tending to narrow through the centuries in Romance" (Laurent 1999: 16-17).

bokalari dagokionez (analogiaren edo azentuaren indarregatik) eta horren ondorioz, partizipiozko formak ere ez dira beti aurrikusten ahal.

Latin klasikotik latin berantiarrera aldaketak gertatzen dira aditz paradigmagan. Ohargarri da latin berantiarrean eta proto-erromantzean paradigma erregularizatzen dela. Azpimarratu behar da -ŪTU agertzen dela 2. eta 3. konjugazioetako partizipiozko forma gisa: It. *saputo*, Kat. *sabut*, Fr. *su*, Gazt. zah. *sabudo* (orain *sabido*) (Laurent 1999: 69).

Hona beraz, latin berantiarraren paradigma:

Konj.	Infinitiboa	Perfektua	Partizipioa
1.	-ĀRE	-ĀVĪ	-ĀTU
2., 3.	-ĒRE, -ĔRE -SĪ	-UĪ -SU	-ŪTU
4.	-ĪRE	-ĪVĪ	-ĪTU

#### 1.4.2. Erromantzea

Hizkuntza erromantzeek segitu dute aditz paradigmaren berrantolatzen, baina horretarako estrategia desberdinak erabili dituzte, kasik bakoitzak berea garaturik. Gainera, klase aldaketak ere gertatu dira. Izan ere, aditz asko 2. konjugaziotik 4.era pasatu dira erromantze guzietan (lat. MERĒRE, MERUT, MERITU > fr. zah., okz., kat. zah. *merir*; lat. SORBĒRE, SORBUT, SORBITU > okz., kat. *sorbir*) eta okzitanieraz eta katalanez batzuk 2. konjugaziotik 3.era (lat. RĪDĒRE > fr., okz., *rire*, kat. *riure*; lat. RESPONDĒRE > fr. zah., okz. *respondre*) (Laurent 1999: 62-63). Dударik gabe, 2. eta 3. konjugazioek dute aldaketa gehien pairatu. Ikusiko dugun bezala, horiek dira hain zuzen ere gure testuetan egonkortasun gutien duten formak.

Alabaina, biziki luze izan da paradigmaren egonkortzea. Latin berantiarretik hunat irau du:

Between Latin and Romance, many verbs shifted from the 2<sup>nd</sup> conjugation to the 4<sup>th</sup>. Nevertheless, the importance of those that remained -HABĒRE 'have', SEDĒRE 'sit' and TENĒRE 'hold, have'- grew remarkably (Malkiel 1987, 167). When texts like the postclassical Vulgate (ca. 400 CE) are compared with versions in Romance languages, moreover, 2<sup>nd</sup> conj. verbs are used more often than 4<sup>th</sup> conj. ones. Therefore 'l'état de choses que Malkiel attribue à la période s'étendant du IV<sup>e</sup> au VI<sup>e</sup> siècle dure, en réalité jusqu'à nos jours.' (Manczak, 199). Indeed in Spanish and Portuguese, the 2<sup>nd</sup> conjugation seems to have engulfed the 3<sup>rd</sup>. Everywhere else, most notably in Catalan and modern Occitan, the 2<sup>nd</sup> conjugation has shrunk. In Sardinian, often the odd language out, the 3<sup>rd</sup> conjugation has engulfed the 2<sup>nd</sup> (Laurent 1999: 64).

### 1.4.2.1. Frantsesa

Konj.	Latin Berantiarra		Frantses Modernoa <sup>4</sup>	
	Infinitiboa	Partizipioa	Infinitiboa	Partizipioa
1.	-ĀRE	-ĀTU	-ER	-é <i>aimé</i>
2., 3.	-ĒRE, -ĔRE -SU	-ŪTU	-(D)RE, OIR	-u <i>battu</i>
4.	-ĪRE	-ĪTU	-IR	-i <i>fini</i>

### 1.4.2.2. Gaskoiera

Konj.	Latin Berantiarra		Gaskoiera Modernoa <sup>5</sup>	
	Infinitiboa	Partizipioa	Infinitiboa	Partizipioa
1.	-ĀRE	-ĀTU	-A(R)	-at <i>amat</i>
2., 3.	-ĒRE, -ĔRE -SU	-ŪTU	-E(R)	-(g)ut <i>batut</i>
4.	-ĪRE	-ĪTU	-I(R)	-it <i>fenit</i>

Gaskoieraren historian –eta orohar okzitanieraren historian– konjugazio desberdinen berrantolaketak mugimendu anitz eragin du. Bigarren eta hirugarren konjugazioetako aditz franko 4. konjugaziora pasatu da<sup>6</sup>, gisa horretan latinaren barnean arrunt irregularrak ziren formak erregularizatu:

La conjugaison lat. à inf. *-īre* a absorbé la plupart des verbes provenant de thèmes germ. en *-ja-* et beaucoup de verbes lat. en *-ēre* et *-ēre* à inf. refaits, d'après la correspondance *audīre- audiō*, sur leurs prés. ind. en *-iō* et *-eō* > *-iō*. [...] Il en est résulté une conjugaison infiniment plus facile que celle qui continue les conjugaisons lat. en *-ēre* et *-ēre*. Celle-ci n'a guère conservé que des verbes très usités comme *facere*, *dicere*, *pr(eh)endere*, *habere*, *debere*, etc..., et la conjugaison nouvelle a souvent absorbé des verbes difficiles à conjuguer pour une raison quelconque : verbes à formes athématiques comme *sufferre*, *offerre*, vpr. *sofrir*, *ofrir*, prov. *soufri*, *oufri* ; verbes comportant des résolutions phonétiques multiples avec un tel écart entre leurs différentes formes que celles-ci n'eussent plus été senties comme appartenant au même verbe, ex. *por(ri)gere*, prov. *pourgi* ; verbes faisant partie d'un vocabulaire abstrait, en général récent, ex. *supremi* 'supprimer', *agi* 'agir', *poussedi* 'posséder', *counverti* (vpr. *convertir*) 'convertir', *discuti* 'discuter', *eiserici* 'exercer', etc... et même *legi* < *legere* (vpr. *leger*, *leire*, *legir*) (Ronjat 1980: § 546).

4. Aldaketa frantses zaharrean gertatzen da (X. mendea inguru).

5. Aldaketa gaskoiera zaharrean gertatzen da (X. mendea inguru).

6. Aldaketa kontrako norabidean ere gertatu da batzuetan. *-utu* hedatu da *-i(r)* aditz batzuetara, izen berezi batzuetan ikus daitekeen bezala: *venīre* > *venūtus* ; *sepelīre* > *sepelūta* (Ronjat 1980: § 593).

Pairs of rhizotonic and arrhizotonic past participles competed in Old Occitan, with the first usually inherited and the second based on the infinitive stem. Such pairs were *defes* < DĒFĒNSU and *defendut* 'fought off', *elig* < ĒLĒCTU and *elegut* 'chosen', *remas* < REMĀNSU and *remazut* 'stayed', and *rot* < RUPTU and *romput* 'broken' (Laurent 1999: 265-66).

Horrek *-it* eta *-ut* bukaeren arteko txandaketak ekarri ditu partizipio batzuetan: (*e*)*jssit* / (*e*)*jssut* ≠ lat. EXĪTU 'gone out', *expandit* edo *expandut* 'hedatu' ≠ lat. EXPĀNSU, *ferit* or *ferut* 'struck'. Txandaketa gehienak okzitaniera zaharrekoak izanik ere, batzuk oraino bizirik dira okzitaniera modernoan: *mozut* / *mozit* 'milked' (Laurent 1999: 270).

Gaur egun, emankorrena denaz geroz, 1. konjugazioak, 4. konjugazioko aditzak bereganatzen ditu : *corregi(r)* > *corrija(r)* ; *diferi(r)* > *difera(r)* ; *discuti(r)* > *discuta(r)* ; *poussedi(r)* > *pousseda(r)* ; *suprimi(r)* > *suprima(r)*, *imprimi(r)* > *imprima(r)*. Iduri luke gertakari hori frantsesaren ereduaren eraginez gertatzen dela, eta fr. *parler* vs okz. *parla(r)* dugun bezala, hiztunak fr. *corriger* vs okz. *corrija(r)* korrespondentzia sortzen duela (Ronjat 1980, Laurent 1999). *-a(r)* eta *-i(r)* bukaeren arteko txandaketak bizirik dira hizkera batetik bestera ere: *redemā*, *redēme*, *redemi* (Palay 1991); *resistā*, *resisti*; *emprimi*, *emprima*, *imprima* (Mistral 2005).

#### 1.4.2.3. Gaztelera

Konj.	Latin Berantiarra		Gaztelera Modernoa	
	Infinitiboa	Partizipioa	Infinitiboa	Partizipioa
1.	-ĀRE	-ĀTU	-AR	-ado <i>amado</i>
2., 3.	-ĒRE, -ĔRE	-ŪTU -SU	-IR	-ido <i>batido, venido</i>
4.	-ĪRE	-ĪTU		

Gaztelarak biziki irregulartasun guti du partizipioaren formari dagokionez. Aditz batzuk klase batetik bestera pasatu dira (*quebrado* < lat. CREPĪTU, *sonado* < lat. SONĪTU) eta latinaren partizipio irregular batzuk erregularizatu dira (*corrido* < lat. CURSU, *fundido* < lat. FŪSU, *medido* < lat. MĒNSU, *tendido* < lat. TĒNSU).

Bizkitartean, gaztelera modernoaren taula horrek ez du bat egiten ertaroko gaztelerekin. Izan ere, XVI. mendera arte, 2. eta 3. konjugazioetako aditzen partizipioek *-ido* eta *-udo* formak har zitzaketen: *metudo*, *vençudo*, *sabudo*, *temudo*, *abatudo*, *corrompudo*, *perdudo*, *conosçudo*, *esparzudo*, *ardudo*, *defendudo* bezalako formak ditugu testu zaharretan (García de Diego 1981, Laurent 1999).

Gainera, batzuetan eredu hori 4. konjugaziora ere hedatu zen analogiaz: *apercebudo* (< *apercebir*), *venudo* (< *venir*). XIV. mendean, *-ido* eta *-udo* atzizkien arteko lehia gogortzen da eta XVI. menderako *-ido* 2. eta 3. konjugazioetara orokortua da eta *-udo* desagertua<sup>7</sup>.

7. *-udo* atzizkiaren arrastoa fosil gisa agertzen zaigu adjektibo zenbaitetan: *barbudo*, *ojudo*, *orejudo*, *cabezudo*. Datu horiek frantsesaren parekoak dira: *barbu*, *ventru*, *poilu*, *goulu*. Italiaraz eta Erromaniera ere gisa horretako erabilpenak ditugu.



Given that *-udo* p.p.s began to yield to competitors in *-ido* only in fourteenth-century Spanish and fifteenth-century Portuguese, they most likely lasted beyond the High Middle Ages. One might suppose, then, that in Proto-Spanish most descendants of 2<sup>nd</sup>- and 3<sup>rd</sup>-conj. verbs (both with infins. in stressed *-er*) adopted either *-ido* or *-udo* as p.p.s endings, so that e.g. either *metido* or *metudo* tended to replace attested *mis[s]o* or *mes[s]o* 'put into' < MISSU 'sent'. Later, *-ido* took over for nearly all non *-ar* verb past participles. Penny agrees with this view, noting that before literary norms were established the two endings *-ido* and *-udo* alternated freely in the participles of 2<sup>nd</sup>-/3<sup>rd</sup>-conj. *-er* verbs, but that thereafter *-udo* grew steadily less common (1991,193) [...] By the sixteenth century, certainly, *-ido* p.p.s had replaced all earlier *-udo* ones for non-1<sup>st</sup>-conj. verbs in Spanish and Portuguese (Laurent 1999: 307).

Ohartarazi nahi genuke frantsesa eta gaztelerak bide desberdinak hartu dituztela aditz paradigma berrantolatzean: frantsesak 1. konjugazioaren alde egin du, gaztelerak 4. konjugazioaren alde.

### 1.4.3. Euskara

Horago erran dugun bezala, euskarak aditz franko mailegatu zion latinari lehenik, eta erromantzeari geroago.

#### 1.4.3.1. Latinari

Euskarak iraganeko partizipioak mailegatu zizkion latinari, *-tu* atzizkidunak<sup>8</sup>: lat. *iuxtatum* > eusk. *jostatu*, lat. *auditum* > eusk. *aditu*.

Ohargarri da latinetik ditugun partizipiozko formak oro *-Vtu* gisakoak direla eta 2. eta 3. taldeetako *-TUM* forma tautiko atematikorik edo *-SUM* forma sigmatikorik ez zaigula agertzen. Izatekotan, aurkitzen ditugun arrasto bakarrak ez dira gehiago partizipio gisa erabiltzen kategoria aldaketa pairatu baitute: izen, adberbio, adjektibo gisa erabiliak dira euskaraz. Horren adibide dira *falsu* adjektiboa (gazteleraz *falso*)<sup>9</sup> eta *usu* aditzondoa, ordenean, latin klasikoan *FALLERE* eta *USARE* aditzen partizipio sigmatikoak zirenak.

Bestalde, latinaren aditz irregularrak erregularizatu zitezkeen euskararen barnean. Itzul gaitzean gorago (1.1-n) eman dugun Mitxelenaren aipura. Mitxelenak erraten digu euskarak *-atu* eredu hedatu duela hala behar ez luketen aditzetara (1. konjugaziokoak ez diren ber). Guk ere uste dugu latinaren konjugazio zabalena (1.a) beste konjugazioetara (2. eta 3. etara bereziki) hedatu zela: lat. *parcere* > part. *parsum*, *parcitur* → eusk. *barkatu*; lat. *pascere* > part. *pastum* → eusk. *bazkatu*; eta seguraski hortik *bazka* izena eta aditz-oina, eta *p(h)arka* / *barka* aditz-oina erator zitezkeen. Halere, ohartarazi nahi genuke Mitxelenak

---

8. Partizipiozko formarekin sartu ez diren aditzak guti dira, eta kategoria aldaketa pairatu dute. Bi ditugu gogoan : *placet* euskaraz *laket* dena (adjektiboa), *placere* aditzaren forma jokatu dena, 3. pertsonakoa; eta *habere* infinitiboa *abere* (izen) gisa duguna euskaraz.

9. Partizipioa erregularizaturik *gast*. *faltado*. Gaskoinak *faus* forma erabiltzen du albokariaren bokalizatzearekin, haren ezaugarri fonetiko markagarrienetakoa baita.

aipatzen dituen adibide gehienek partizipio tautiko atematikoa dutela latinez (hots, 'C-tu formakoa), euskarak zen bezala hartzen ahal ez zuena arrazoin fonotaktikoengatik<sup>10</sup>: lat. *benedicere* > *benedictu* → eusk. *benedikatu*, lat. *intelligere* > *intellectu* → eusk. *entelegatu*, lat. *scribere* > *scriptu* → eusk. *eskribatu*<sup>11</sup>.

Beherago ikusiko dugun bezala iduri luke gaur egun *-atu* oraino gehiago hedatzen ari dela frantsesarekin kontaktu bizia duten euskaldunen euskaran.

#### 1.4.3.2. Erromantzeari

Euskarak bere inguruko erromantzeeri ere aditzak mailegatu dizkie: gaskoiera, gaztelera eta frantsesari. Galdera nagusia hau da: zer aditz forma mailegatu die hizkuntza erromantzeeri? Partizipioak ote?

Gaztelerearen kasuan, iduri luke segurtasun handiarekin erraten ahal dugula partizipioa mailegatzeko delat. Gaztelerek ebidentzia garrantzitsu bat ematen digu horren alde: infinitiboaren eta partizipioaren artean den bokal txandaketa (*transmeter / transmitido, prometer / prometido*). Izan ere, euskarak jatorrizko partizipioaren bokala atxikitzen du eta hori pisuzko argumentua iduritzen zaigu aski segurki erran ahal izateko zuzenean partizipiozko forma mailegatzeko diola gaztelari, gaztelerearen *-do* atzizkia, *-tu* atzizkiarekin ordezkaturik: *transmitido* > *transmititu*, *prometido* > *prometidu* (Lazarraga 1567). Bigarren argumentu gisa har dezakegu mendebaldeko euskalkietan gertatzen den partizipiozko atzizkiaren ahoskuntza: erromantzearen barnean gertatu lenizioa da, euskarara pasatu dena, euskarak gaztelari partizipiozko forma mailegatu diolarik.

Gaskoinak eta frantsesak, berriz, ez digute ebidentzia garbirik eskaintzen, partizipioaren edo beste edozein formaren alde egiteko. Bizkitartean, suposatzen dugu estrategia bera erabili dela hizkuntza erromantze desberdinetarik mailegatzeko orduan. Gaskoineraren kasuan ere infinitiboaren eta partizipioaren artean diren desberdintasunek bide bat *-xumea* izanik ere idekitzen ahal digute partizipioaren alde egiteko.

Lehenik, jakin behar da gaskoieraren historian hitz bukaerako dardarkariak desagertuz joan direla, infinitiboak dardarkaririk gabe utziz<sup>12</sup>. Ronjat-ren arabera, biarnesez gutienez XV. mendean has zitekeen dardarkarien erorketa (Ronjat

---

10. Oroit euskara zaharrak ez zuela *-TT* gisako kontsonante talderik onartzen (T= herskari). Kontsonante taldeak beti desegin ditu bere historian zehar, bokalak gehiturik: bokalak gehiturik (cruceum > gurutze), edo kontsonante bat erorarazirik (placet > laket).

11. *Eskribatu*-ren kasua ez da hain argia batzuek \*SCRIP'ATU berreraikitzen baitute latin berantiarrentzat edo Proto-erromantzearentzat (Laurent 1999: 404). Kasu horretan euskarak forma hau zuzenean har ziezaiokeen erromantzeari. *Eskribatu* forma zaharrena da iparraldeko autoreen testuetan (Leizarraga 1571, Etxeberri Ziburukoa 1627).

12. Dardarkari hauek silaba azentugabeetan hasi ziren galtzen eta galtzea azentudunetara hedatu zen emeki-emeki. Gaur egun infinitibo guziak *-r*-rekin idazten badira erer-ak, grafikoak baizik ez dira, ez baitira ahoskatzen.

1980: §391). Peillen-en arabera (1998), horrek errettuko zuen gaskoineratik aditzen mailegatzea:

Le <r> final de l'infinifitif ne se prononce pas –ce que du sans doute faciliter l'emprunt des verbes par le basque où l'on ne trouve aucune trace du <r> de l'écriture qui aurait, embarrassé la dérivation-conjugaison basque (Peillen 1998: 25).

Le basque semble avoir emprunté surtout au parler plutôt qu'à l'écrit occitan, cela se voit dans la forme des emprunts (absence du 'r' écrit à l'infinifitif,) l'occitan écrit ne jouant sans doute qu'un rôle de prestige qui incitait les basques à l'apprendre (Peillen 1998: 30).

Bizkitartean, euskarak infinitiboak mailegatu balitu, nola esplika euskaraz gertatzen den bokal aldaketa? Har dezagun adibide bat: *apercebe(r)* aditza. Peilleni jarraikiz euskarak infinitiboa har zezakeen (-r-rik gabea) eta -tu gehi ziezaiokeen: *apercebe* > **\*\*aperzebetu**. Bizkitartean, euskarak *aperzebitu* eta gaskoierak *apercebut* partizipiozko formak dituzte. Hori orokorra da gaskoineraren 2. eta 3. konjugazioetako partizipioekin: euskaraz -itu atzizkia dute, gaskoinez -utu atzizkia dutelarik. Gure ustez, euskarak ez du infinitibozko forma mailegatu eta gero -etu > -itu. Proposatzen dugu euskarak segitu duela gaskoierari partizipioen mailegatzan -latinetik egin ohi zuen bezala- eta gask. -ut vs eusk. -it oposaketa egokitzapen fonologikoaren ondorioa baizik ez dela, euskarak zuen bokal sabaikari bakarra erabili duela falta zitzaion /y/ bokalaren ordeztu (beherago luzekiago garatua 1.4.3.2.2). Bokal aldaketa hobeki esplikatzeaz gain, uste dugu proposamen hau ekonomikoagoa dela, prozesu bera suposatzen baitu bi kontaktu egoera desberdinetan.

Aditzen mailegatzeko orduan, partizipioa oinarrizko forma izanik ere, ez dugu ukatzen beste forma batzuek ere eragina izan zezaketela azken formaren finkatzean. Izan ere gorago ikusi dugu infinitiboaren eragina partizipio batzuen forman erromantzearen barnean (lat. *dēfensu* >gask. *defendut*, *defender* infinitiboaren eraginez). Euskararen barnean ere ikusten da infinitibozko formak izan dezakeen eragina partizipioaren azken forman: *konponidu* (Lazarraga c. 1564, Zubia 1691), *suponitu* (Lazarraga 1777, Otxoa Arin 1713) bezalako formak aurkitzen ditugu *konposatu*, *suposatu* formen ordeztu (*componer*, *compuesto*; *suponer*, *supuesto*). Bestalde, infinitibozko formaz gain, forma jokatuak ere eragina izan lezake azken formaren finkatzean. Ekialdeko hizkerak *zerbitzatu* aditza erabiltzen dute, gaskoinez *serbi(r)* aditza dugularik. Dakigun bezala, gaskoineraren 2. taldeko aditz gehienek -iss- artizki inkoatiboa daramate forma markatu gabe gisa orainaldi sinplean: *servissi*, *servisses*, *servís*, *servissem*, *servissetz*, *servissen*, eta hortik heldu liteke ekialdeko hizkeretako -tzatu forma, gainerateko euskalkiek -tu forma dutelarik. Beste aukera bat da pentsatzea izenak eragina izan duela aditzaren berregituraketan: gask. *serbíce* 'zerbitzua', gask. *serbíciale* 'serbitzari' (bainan horren ondoan *serbidoù* eta *serbitur* ere ditugu). Dударик gabe, antolaketa eta berrantolaketa horiek oroitarazten digute hizkuntza sistema dinamikoa dela, horrek aintz korapiltzen baitu diakronistaren lana.

Bukatzeko, dakigun bezala, euskarak erromantzearen partizipiozko formak bere paradigmatari egokitu ditu jatorrizko partizipio atzizkia kenduz eta bere egin zuen *-tu* atzizki emankorra gehituz<sup>13</sup>.

Ikus dezagun xehekiago aditz mailegaketa nola gertatu den hizkuntza erromantze bakoitzarekin.

#### 1.4.3.2.1. *Gaztelera*

Gorago ikusi bezala, gaztelera modernoak bi partizipio baizik ez ditu: (i) *-ado* atzizkidunak, *-ar* infinitiboa duten aditzentzat, (ii) *-ido* atzizkidunak gainerateko aditzentzat, erran nahi baita *-er* eta *-ir* infinitiboa duten aditzentzat.

Erran behar dugu biziki nekez aurkitzen ditugula gaztelerearen garai zaharra-goetako *-udo* partizipiozko formen arrastoak. Bat baizik ez dugu aurkitzen gure testu zaharrenetan : *benzutu* aditza, garai batean *vençudo* gisa lekukotua zena (*Cid*-en adibidez). *Benzutu* aurkitzen dugu mendebaldeko (Añibarro 1820, Lardizabal 1855, Otxoa Arin 1713) eta ekialdeko (Leizarraga 1571, Axular 1643, Pouvreau 1665) testuetan. Bizkitartean, *benzidu* ere aurkitzen da gure testu zaharrenetan (Lazarraga 1567).

Halere, uste dugu zuzena dela pentsatzea garai batean gaztelerek *-udo* partizipio asko zuen ber, euskarak *-utu* partizipio mailegatu gehiago zukeela.

#### 1.4.3.2.2. *Gaskoiera eta frantsesa*

Ekialdeko euskalkietako maileguak aztertzeke momentuan, gogoan atxiki behar dugu XIX. mendea arte euskaldunek ez dutela kontaktu bizirik izan frantsesen hizkuntzarekin. Aldiz, gaskoiera eta biarnesarekilako kontaktua tinkoa izan da gutienez XIV. mendeaz geroztik, orduan Lapurdi eta Zuberoako administrazio hizkuntza ofiziala bilakatzen baita. Orduan, erran gabe doa garrantzi handikoak izanen direla gaskoiera eta biarnesaren datuak hizkuntzaren garai zaharren aztertzeke.

Aditzaren gaira itzulirik, erran behar dugu Ipar Euskal Herrian, hots euskara lehenik gaskoierarekin (eta gero frantsesarekin) kontaktuan izan den eremuan dugula txandaketa gehien, arazo gehien partizipio mailegatuen formei dagokie-

---

13. Bestalde, *-tu*-ren ordez, *-tatu* atzizkia nasaiki aurkitzen dugu ekialdeko hizkeretan. Gehiengian instrumentalaren ondotik agertzen da: Axular (1643) *atsekabeztatu*, *ederztatu*, Etxeberri Ziburukoa (1627): *orraztatu*, *urreetatu*, Leizarraga (1571) *ezeztatu*, *ihiztatu*, Oihenart (1657) *zilharstatu*, *errege-granaztatu*. Batzuetan, *-tatu* atzizkia aurkitzen dugu instrumentalik gabe. Adibide guti dugu halere: *solhastatu*, *ausartatu* (Duvoisin 1859-65), *gezurtatu* (Oihenart 1657, *Prov.*). Uste dugu atzizki hori latinari mailegatu zaiola. Latinak *-TĀTU* / *-SĀTU* atzizkiak baliatzen ditu iteratibo, frekuentatibo, intentsibo gisa. *-TU* vs *-TĀTU* / *-SĀTU* txandaketa bizirik zen Latin Klasikoan baina denboran zehar, forma frekuentatiboa hedatu da ingurune arruntetara, eta Latin Berantiarerako forma arrunt asko desagertua da, forma markatuek ordezkatirik (ad.z CANTU > CANTĀTU).

nez. Hautatu dugu gaskoierazko eta frantseseko datuak batera aztertzea, alde batetik bi hizkuntzek aditz paradigma berdintsu antolatua dutenez<sup>14</sup> pareko tratamendua baitute euskararen barnean eta beste alde batetik batzuetan biziki zaila baitzaigu erabakitzea mailegua hizkuntza erromantze batetik ala bestetik hartua den<sup>15</sup>.

Lehenik, 1. konjugazioari dagokionez, fr. *-é*<sup>16</sup>, okz. *-at* > *-atu* gisa dugu euskaraz: fr. *frotter, opérer* > eusk. *frotatu, operatu*; okz. *trufât, birat* > eusk. *trufatu, biratu*. Gero, 3. konjugazioko formek *-itu* atzikia dute euskaraz: fr. *-i*, okz. *-it* > *-itu*: fr. *fini* > eusk. *finitu*, okz. *goarnit* > *goarnitu* (Leizarraga 1571). Bigarren konjugazioari dagokionez, (edo latinaren 2. eta 3. konjugazioak) gaskoinez (eta frantsesez) *-ut* gisa duguna, *-itu* gisa agertzen zaigu euskaraz: *concebitu* (Leizarraga 1571) (lat. *concipere, conceptum*; gask. *councébe, councebut*); *permetitu* (Leizarraga 1571) (Lat. *permittere, permissum*, Gask. *perméte, permetût*). Hori beti hala da. Nola azaldu agertzen zaigun fr., gask. *-u(t)* > eusk. *-itu* aldaketa?

Aukera bat litzateke erratea ekialdeko hitzunez gaztelararen patroia segitu dutela, 2. konjugazioko aditz guztiak *-itu* gisa baliaturik: *Entretenitu, permetitu, konzebitu, preferitu, rezebitu, retenitu / entretenido, permitido, concebido, preferido, recibido*. Bizkitartean, ez dugu ebidentzia historikorik gaztelararen hainbestearinoko eragina proposatzeko ekialdeko euskalkietan. Beste azalpen posiblea da erratea euskarak gaskoieraren (eta frantsesaren) *-ut* baztertu duela arrazoin fonetikoengatik *-Latinezko ū > ü (/y/)* bilakatu da gaskoinez eta frantsesez-. Beraz euskarak */y/-rik* ez baitzuen, *-itu* gara zezakeen, */i/* baita euskararen bokal sabaikari bakarra eta hortik */y/-tik* hurbilen gelditzen dena. Bizkitartean bi galdera heldu zaizkigu parez pare: noizkoa da okzitanieraren */y/-a*? Rohlf's (1972) ez da ausartzen data baten proposatzera eta Ronjat-ek (1980) erraten digu biziki zaharra bide dela<sup>17</sup>. Eta zergatik Zubererak */y/* bokala izanik ez du *-ütü* partizipiorik garatu? Pensa dezakegu mailegu guzi horiek Zubererazko seigarren bokala sortu aitzin gertatu zirela, eta berantago, nahiz eta */y/* bokala izan, mailegu berriagoetan ere betiko patroia morfonologiko egokitzaila erabili zela<sup>18</sup>.

Bukatzeko, erran behar dugu *-ut* formaren arrasto batzuk aurkitzen ditugula ekialdeko euskararen barnean. Salbuespen bakarra, berriz ere, *benzutu* dugu Leizarragak (1571) erabiltzen duena eta iduriz berant arte iraun duena, Maddi

---

14. Frantsesa eta gaskoiera (eta okzitaniera) bat datoz hiru formaren erabilpenean: gask. *-ar* infinitiboa dutenek *-at* partizipioa dute eta fr. *-er* (lehengo lat. *-ĀRE*) infinitiboa dutenek *-é* partizipioa dute; gask. *-er*, fr. *-oir, -er, -ut* eta *-u* (*[y]*) partizipioak dituzte hurrenez hurren, eta gask. *-i(r)* eta fr. *-ir* infinitiboek, ordenean, *-it* eta *-i* partizipioak dituzte.

15. Gainera horietarik batzuk latinari ere har ziezazkiokeen. *Continuum* batean *gara* eta biziki zaila da gauzen zehazki bereiztea. Dena den gure helburua ez da aditz mailegatuen bidea berreraikitzea baizik eta euskaraz izan duten tratamendua argitzea.

16. Oroit hau *-a* dela frantses zaharrean eta bokala hetsi dela hizkuntzaren historian.

17. « La présence de la voyelle ü [...] est sans doute très ancien[ne] » (Ronjat 1980: §4).

18. Dena den, zubereraren seigarren bokalaren sorrera ere oraindik aztertzea da.

Ariztiren *Amattoren uzta*-n (1982) ere erabiltzen baita<sup>19</sup>. Beste salbuespen bat dugu *resolutu* aditza, Xahok (1834) partizipio gisa erabiltzen duena, baina Tartasek soilik adjektibo gisa erabiltzen duena<sup>20</sup>. Azkenik, ohartarazi nahi dugu Xiberuan, *-ut* partizipioaren marka atxiki dela partizipioetarik eratorri adjektiboetan: *pergüt* (Etxahun Topet 1970) 'insolvable, ruiné; insulte' (Lhande 1926, Larrasquet 1939), *golüt* 'vorace' (Lhande 1926), *resolutu*, *disolutu* (Tartas 1672)<sup>21</sup>. Guk ez dugu dudarik euskarak gaskoierari adjektibo gisa mailegatu zizkiola forma horiek, eta ez partizipio / aditz gisa<sup>22</sup>.

Bestalde, egokitzapen horiez aparte, txandaketak daude ditugun formen eta espero genituzkeen artean. Batzuetan, gaskoierak *-at* partizipioa duelarik, euskarak *-it* partizipioa du: gask. *persistâ* vs eusk. *persistitu* (Leizarraga 1571), gask. *assistâ* vs eusk. *asistitu* (Leizarraga 1571) (lat. *Adsistĕre*) (Palay 1991). Bizkitartean, baliteke arras gaskoierazko forma horiek berriak izatea<sup>23</sup>. Beharbada euskaraz *-itu* gisa ditugunak (eta gaskoieraz eta biarnesez *-atu* gisa) okzitaniera zaharrean ere hala ziren. Oroit gaitzen Ronjat-ek (1980) erraten digula laugarren konjugazioko aditz ainitz lehenbizikora pasa dela, frantsesaren eraginez (ikus gorago 1.4.2.2.). Gainera, erran dugun bezala, okzitanieraz sekulako txandaketak daude oraino ere *-at* eta *-it* formen artean. Azkenean, gaskoieraren hiztegi historiko zehatz bat behar genuke, forma desberdinak testuz testu biltzen dituen, euskara eta gaskoieraren datuen arteko batasun eza segurtasun osoz trenkatu ahal izateko.

Alderantzizko gertakaria ere atzematen dugu. Batzuetan, *-atu* forma dugu ekialdeko euskarari, inguruko erromantzeetan *-ut* (gaskoieraz, edo *-u* frantsesez) edo *-ido* (gazteleraz) dugularik: eusk. *defendatu* vs gask. *defĕnde* (part. *defendut*), gask. *defender* (part. *defĕndido*) (lat. *dĕfĕndĕre*) ; eusk. *rendatu* vs gask. *rĕnde* (part. *rendüt*), gask. *rendir* (part. *rendido*) (lat. *rĕndĕre*) ; eusk. *prometatu* vs gask. *promĕte* (part. *prometüt*), gask. *prometer* (part. *prometido*) (lat. *promĭttĕre*, (part. *promĭssum*) ; eusk. *eskribatu* vs gask. *escriĕbe* (part. *escribüt*, *escriüt*), gask. *escribir* (part. *escriĕto*) (lat. *scriĕbere* (part. *sriptum*)).

Gainera, idazki honen lehenbiziko partean erran dugun bezala (1.3.2.), garai batetik bestera ere, aditz batzuetan *-itu* / *-atu* txandaketak ikusten ditugu euskalki beraren barnean: *inprimitu* (Etxepare 1545, Leizarraga 1571) vs *inprimatzallea* (Etxeberri Ziburu 1627), *inprimaturik* (Axular 1643)<sup>24</sup>; *korrijitu* dugu Axu-

19. Gaskoieraz ere hala dugu: "Bençüt, -ude : adj. Vaincu, -e" (Palay 1991).

20. *Ezin suporta ahalez hainbeste pribazione erresolutu zen azkenekoz arrisk orotara, bere lurri-la arrajitera, eta etzin berantu justiziaz arrestaturik ikhustera* (Xaho 1834). *Soldado koraios, resolutu, eta deliberatu hau* (Tartas 1666).

21. *Exzesibo eta disolutu bada* (Tartas 1672).

22. Bide batez, ohar gaitzen *golüt* eta *pergüt* formek [y] bokal sabaikaria dutela.

23. Oroit Palay-ren hiztegiak (1991) gaskoiera eta biarnesa modernoan datuak biltzen dituela.

24. Oroit okzitanieraz ere txandaketa bera dugula partizipio berean : *emprima* / *emprimi* formak ematen ditu Mistralek (2005) bere hiztegian.

lar (1643) eta Tartas-en (1666) testuetan, gaur egun, ekialdeko hiztun batek *korrijatu* erran lezakeena. Gure ustez datu hauek erakusten dute *-atu*-ren eredia hedatuz doala alde batetik barne indarregatik (oroit Mitxelenaren aipua), eta bestetik frantsesaren patroia eraginarengatik (gaskoinez eta okzitanieraz gertatzen den bezala).

Bestalde, *-itu* eta *-atu*-ren arteko txandaketak ditugu euskalki batetik bestera, bakoitzak kontaktuan duen hizkuntzaren arabera. Erran behar da Nafarroa garai-ko eta erdialdeko (gipuzkera) hizkerek datu nahasiak dituztela, batzuetan ekialdeko hizkeren patroia segitzen baitute eta bestetan mendebaldekoena<sup>25</sup>. Gorago aipatu ditugun adibideak berriz harturik gisa horretako txandaketak ditugu aditz mailegatuen artean: *defendatu* (Leizarraga 1571, Axular 1643, Lizarraga 1777, Beriain 1621) vs *defenditu* / *-du* (Hualde Maio 1855, Otxoa Arin 1713, Lazarraga 1567, Kardaberaz 1761); *rendatu* (Leizarraga 1571, Tartas 1666) vs *renditu* / *-du* (Lizarraga 1777, Lazarraga 1567); *prometatu* (Leizarraga 1571, Pouvreau 1664, Beriain 1621) vs *prometitu* / *-du* (Lazarraga 1567, Hualde Maio 1855, Kapanaga 1656); *eskribatu* (Leizarraga 1571, Beriain 1621, Lardizabal 1855, Tartas 1666) vs *eskribitu* / *-du* (Lazarraga 1567, Hualde Maio 1855, Otxoa Arin 1713, Kapanaga 1656).

Azkenik, frantsesetik hartu aditz batzuk egokitzapen berezirik gabe erabiltzen direla euskaraz, erran nahi baita ez zaiola *-tu* atzizki emankorra gehitu partizipoiari: *fini duk!*, *permis da!* (Tartas 1672, Etxeberri Ziburukoa 1627), *puni da*. Hauen erabilpenari buruz, erran behar dugu halere lehenbizikoa orokorra bada perfektuzko perifrasiari (*fini duzue zuen lana*), bigarrena eta hirugarrena adjektibo gisa baizik ez direla erabiltzen.

Bukatzeko, erran behar da, salbuespenak salbuespen, oro har erromantzetik hartu aditzek egokitzapen morfologikoa pairatu dutela, erran nahi baita *-tu* atzizki emankorraren gehitzea. Ez du iduri gauza bera erran dezakegunik jatorri germanikoa duten aditzek: *gorde* eta *bota* aditzak, ordrean, germ. *gordan* eta *botan* formatari etortzen bide dira (REW), eta euskara inguratzen duten hizkuntzetan aurkitzen dira (*guardar* 'watch over'; gask. *bouta* 'bouter, mettre, poser' (Ronjat 1980: § 26); fr. *bouter*). Euskaraz latinaren edo erromantzearen bidez sar zitezkeen. Bizkitartean, bi aditz hauek (kasualitatea izan ala ez) ez dute *-tu* atzizkia hartu. Jakin behar liteke hizkuntza erromantze horietan nolako forma zuten lehenagoko garaian eta euskarak nola, hots zer formatan mailegatu dizkien, horrek eragina izan baitzezakeen mailegu horien egokitzapenean euskararen barnean.

---

25. Nafarrerak erakusten duen txandaketa argiki ikusten da Lizarragaren (1777) testuko adibide batean: *prometa(tu)* eta *prometi(tu)* aldaerak erabiltzen ditu bata bestearen ondoan.

## 2. PROZESU SINTAKTIKOAK

Euskarak aditz ainitz mailegatu dizkio latinari<sup>26</sup> eta gorago ikusi dugu nolako egokitzapenak pairatu dituzten euskararen barnean.

Haien jokamoduari dagokionez, aditz mailegatuek ez dute forma trinkorik eta perifrastikoki baizik ez litezke joka. Gainera, gorago erran dugun bezala, aditzak beren partizipiozko forman hartu zaizkio latinari. Orduan, ikusiko dugu lehenik, zer harreman dagoen partizipioen mailegaketa eta perfektuzko perifrasiaren garapenaren artean, eta bigarrenik partizipioaren mailegaketak zer pista idekitzen digun euskararen garai zaharrenen tipologia ezagutzeko.

### 2.1. Partizipioen mailegaketa eta perfektuzko perifrasia

Euskarak partizipioak mailegatu dituen ber, eta dituen perifrasiaren artean perfektuzkoa bakarra izanik partizipioa duena aditz nagusi gisa, berehala ikusten da perfektuzko perifrasiak garrantzi handia izan duela (aditz-)formen mailegaketan, eta horien joka bidean. Argiki, euskaraz jokatuak izateko bidea ematen zien. Dударik gabe, horrek ondorio kronologikoak ere baditu, sinesten badugu euskarazko perfektuzko perifrasiaren sorrera ez dela kokatzen ahal V-VIII. mendeak aitzin (Mounole 2007a).

Bestalde, euskarak partizipiozko forma mailegatu badu, maileguen ondoko formak berriagoak dira: (i) aditzoia (*auditum* > *aditu* > *adi*); (ii) aditz-izena lokati-boan (gerundioa) *auditum* > *aditu* > *aditzen*). Orduan, aoristoko perifrasia zaharrena izanik ere, aditz mailegatuak berantago ager zitezkeen egitura horretan perfektuzko perifrasiaren baino. Azpimarratu nahi dugu bestalde, part. *aditu* > stem *adi*, part. *etorri* / stem *etor*<sup>27</sup> ereduari jarraikiz gerta zitekeela. Gure ustez, horrek erran nahi du, alde batetik -Ø vs -i biziki emankorra izan behar zela, -Ø vs -tu opo-saketa sortzeko, eta bestetik, hiztunak hizkuntza emaileaz, hots, latinaz konzientzia linguistiko handia izan behar zuela -tus atzizkiaren balio funtzionala eza-gutzeko eta -i-ren pareko gisa identifikatzeko. Azkenik, aditz oinaren gainean eratzen den ber, maileguen gerundiozko forma beranduago sortuko zen. Azken datu hori bat dator perifrasiaren sorreraren kronologia erlatiboarekin<sup>28</sup>.

Euskarak mailegatu aditzen izaerari dagokionez, partizipioak izanik, aditz gisa erabiltzen dira, baina adjektibo gisa ere erabiltzen ahal dira. Horregatik, Wohlgemuth-ek (2007) proposatzen du partizipio mailegaketa ez dela aditz mailegaketa sentzu hertsian:

---

26. Momentuz bazter ditzagun hizkuntza erromantzeak eta saia gaitzezen garai zaharrenetako datuen azertzen.

27. Alderantziz, hau *etor* > *etorri* gisa gertatu zen, erran nahi baita partizipioa aditz oinetik *etorri* zela.

28. Ebidentzia formalak ditugu errateko gerundiozko forma partizipioa baino berriagoa dela (Urgell 2006), eta asumitzen dugu inperfektibozko perifrasia perfektuzko baino berantago sortu zela (Mounole 2007b).



Participles, however, are already a borderline case, as they can be considered 'less verby' than fully inflected verb forms (Wohlgemuth 2007: 29).

Orduan, gure galdera da zenbatetaraino zuzena den erratea euskarak latinari partizipioak mailegatzean aditzak mailegatu zizkiola, eta ez ote litekeen zuzenago pentsatzea (aditz-jadjektiboak mailegatu zizkiola, geroxeago partizipio gisa, aditz gisa berranalisatu zirenak euskararen barnean, perfektuzko egitura perifrastikoa berranalisatu zen heinean: [etxea ikusi] [dut] '['ai] [la maison vue]' > [etxea] [ikusi dut] '['ai vu] [la maison]; [bazkaria prestatu] [dut] '['ai] [le déjeuner prêt]' > [bazkaria] [prestatu dut] ['ai préparé] [le déjeuner] (Mounole 2007a). Zaila da erantzun zehatz baten ematea gure testu berantiarrek ez baitute datu zehatzik ematen aditz mailegatuaren hastapeneko izaera, eta balioari buruz.

## 2.2. Ondorio tipologikoak

Ikus dezagun orain tipologiak zer erraten digun partizipioen mailegaketari buruz.

### 2.2.1. Partizipioen mailegaketa: gauza bitxia

Ikuspegi tipologiko batetik abiatzen bagara, berehala ohartzen gara partizipioen mailegatzea gauza bitxia dela. Wohlgemuth-ek (2007) bere azterketa tipologikoan erakutsi du aztertu dituen 400 bat hizkuntzetarik lauk baizik ez dizkiotela aditzak bere partizipiozko forman mailegatu hizkuntza emaileari. Lau horietarik hiru hizkuntza iranikoak dira hizkuntza turkiko bati mailegatu baitio: talisha<sup>29</sup> azerbaijanierari, kurdoa<sup>30</sup> turkikoari, tajikoa<sup>31</sup> uzbekoari:<sup>32</sup>

Tajikoa < Uzbekoa (Ido 2006)

*Tušun.miš kardan*

Ulertu.part. egin

'ulertu' (< Uzbek *tušun* 'ulertu')

Laugarrena kali'na hizkuntza da (Guiana frantseseko hizkuntza kariboa). Euskara, adibide bat gehiago baizik ez litzateke tipologia horretan.

### 2.2.2. Partizipioen egokitzapena

Kali'na hizkuntzak partizipio mailegatua bere egiturari egokitzen du atziki aditz bihurtzaille batekin ('verbalizer'). Gero horri zuzenean erantzen zaio aspektu atzikiak.

---

29. Irania iparraldean eta Azerbaijango errepublikan mintzatua. Hizkuntza iranikoa da.

30. Irak, Iran, Siria, Armenia eta Turkian mintzatua. Hizkuntza iranikoa da.

31. Tajikistan herrian mintzatua (Asia Erdialdea). Persiarren dialekto bat da.

32. Iduri luke Zaza, Tati eta Sariqul hizkuntza iranikoek ere partizipioak mailegatu dituztela auzo dituzten hizkuntza turkikoei (Azerbaijani eta Uyghur). Bizkitartean ez dugu datu zehatzik horren segurtasun osoz errateko.

Hiru hizkuntza iranikoen adibideek gehiago interesatzen gaituzte euskararen datuetarik hurbilen gelditzen direnak baitira. Izan ere, partizipio mailegatua zuzenean sartzen da hizkuntza hartzailean, egokitzapen berezirik gabe (euskara bezala latinetik mailegatu partizipioekin)<sup>33</sup>. Gainera, *kali*'na hizkuntzan ez bezala, baina euskaraz bezala, partizipio mailegatuak egitura analitiko baten bidez jokatzen dira. Zehatzago izateko, egitura arin bat sortzen da partizipio mailegatuarekin: [partizipioa + *kardan* (tajik), *karde* (talysh), *kīrīn* (kurdoa) 'egin'] bezalako egitura hain zuzen. Horrek euskara oroitarazten digu, euskaraz ere partizipio mailegatuak beti egitura perifrastiko batean agertzen baitira. Gorago erran dugu perfektuzko perifrasiak mailegatuaren jokatzeko lehenbiziko bidea zitakeela (berantago agertuko zen beste perifrasietan). Erran behar da euskarak jatorrizko hizkuntzaren partizipioaren balentzia errespetatu duela, partizipio iragangaitzekin *izan* erabiliz eta iragankorrekin *\*edun*.

Hizkuntza iraniko batzuek aditz stemak ere mailegatuak dituzte partizipioen ordean, eta aditz arinen estrategia beraren bidez sartzen aditz paradigmak. Horrek Ido (2006) bultzatzen du proposatzera arrazoi sintaktiko edota kognitiboak ditazkeela partizipioen mailegatzeari. Haren ustez, aditz stemak ez dira partizipioak bezain ongi identifikatzen eta orduan mailegatzeko momentuan partizipio forma errexiago hartzen da.

### 2.2.3. Ondorioak euskararen (aitzin-)historiarako

Hizkuntza gutik mailegatuak ditu partizipioak, eta orduan datu gutiegi dugu ondorio segurren ateratzeko gertakari horri buruz. Bizkitartean, gogoeta pare baten berri eman nahi genuke.

Lehenik, partizipioak mailegatuak dituzten lau hizkuntzetarik hiru (hiru hizkuntza iranikoak (emaila turkikoa) euskeraren parekoak dira beren aditzaren tipologiari dagokionez: aditz trinko guti eta perifrasi asko dituzten hizkuntzak dira, edo hobeki erranik, aditz gutiko hizkuntzak dira. Ez da dudarik aditz inflexiodun gutiko duten hizkuntzek partizipioen mailegatzeko duten joerak bide bat idek dezakeela aitzin-euskararen aditzaren izaerari buruz. Azkue (1935), Lafon (1943) lehenbizikoak izan dira proposatu dutenak beharbada garai zaharrenetan bide trinkoa ez zela euskal jatorriko aditz guzietara hedatua. Urte batzuk berantago Lakarrak (2006) proposatu du aitzin-euskara aditz gutiko hizkuntza zitekeela. Haren bi argumentu nagusiak hauek dira (i) aditz trinkoen izaera kanonikoa e-CVC-*i* motatakoa da, eta forma horretakoak ez direnak ez dira trinkoki jokatzen; (ii) euskarak bide trinko emankorra izan balu aditz mailegatuak ere forma trinkoa hartuko zuten, gure

---

33. Ido-ren arabera (2006), *-miš* partizipio atzizkia ez da gehiago emankorra hizkuntza emaila-etarik batzuen hizkera modernoetan (uzbekoa eta uyghuroa). Orduan, hizkuntza horietarik hartu aditzak edo zaharrak dira (*-miš* erori aitzinekoak), edo atzizkia bera mailegatua da eta orain aditz mailegatuaren egokitzaila emankorra da. Datu hori parekatzen ahal dugu euskaraz gertatu denarekin. Euskarak *-tu* atzizkia mailegatu zion latinari eta gaur egun hizkuntza erromantzei hartu aditzen egokitzaila gisa erabiltzen da. Alabaina, euskara hurrunago joan da *-tu* atzizki mailegatua euskal jatorriko aditzei ere hedatuz (*heldu, sartu, egotu, ahaztu, izandu*) eta partizipio atzizki emankor bakar bilakatu eratorpenean.

inguruko hizkuntzetan gertatu den bezala ('to click' > *clico, clicas, clica, clicamos...*). Lakarraren azken argumentua berriz harturik proposatu nahi dugu aditz mailegatuek euskararen barnean duten jokabideaz gain, aditz mailegatuen formak berak onorio ber-berera eraman gaitzakeela. Euskarak partizipioak mailega zitzakeen aditz gutiko hizkuntzen joera halakoa baita.

Bigarrenik, partizipioen izaeraren gaira itzulirik, erran nahi dugu balitekeela kasualitatea ez izatea aditz guti duen hizkuntza batek, aditz itxura gutien duen formen mailegatzea. Gorago ikusi dugu partizipioen 'adiztasuna' ez dela erabatekoa, sustantiboen eta bereziki adjektiboen ezaugarri asko dituztenaz geraz. Orduan, aitzin-euskarak partizipioak har zitzakeen, alde batetik, arrazoin sintaktikoengatik (ez baitzituen trinkoki jokatzeko ahal), bestetik kategoria gramatikalarri dagozkion arrazoinengatik, tipologikoengatik (berak aditz guti zuenez, ez baitzuen mailegatuko bere baitan guti garatua zen kategoria bat).

### 3. KONKLUSIOA

Euskarak aditzak mailegatu dizkie latinari lehenik, eta latinetik eratorri gaskoiera, gaztelera eta frantsesari berantago. Ikusi dugun bezala, mailegu horien egokitzapena euskararen barnean konplexua da.

Oro har erran dezakegu euskarak hizkuntza erromantze bakoitzaren patroiak segitu dituela mailegu horien bere baitan morfonologikoki egokitzeko: gaztelarari hartu partizipioek horrelako egokitzapena pairatu dute: gazt. *-ado* > eusk. *-atu*; gazt. *-ido* > eusk. *-itu*; gaskoierari eta frantsesari hartu partizipioek berriz gask. *-at*, fr. *-é* > eusk. *-atu*; gask. *-ut*, fr. *-u* > *-itu*, gask. *-it*, fr. *-i* > *-itu*. Bizkitartean, ikusi dugu *-atu* eredua hedatuz joan dela erromantzearen eraginez (gaskoiera eta frantsesa) eta barne indarrengatik. Bestalde, gure ustez, euskararen partizipiozko formetan agertzen den sistema ez egonkorra, inguruko erromantzeetako sistema finkatugabea islatzen du neurri handi batean. Gainera, euskalki batetik bestera diren txandaketak aditzen formetan, hizkuntza erromantze desberdinez inguratua izatetik dator. Bizkitartean, erromantze desberdinen lekukotasunak falta zaizkigu segurtasun gehiagorekin mintzatu ahal izateko: nafar erromantzea, aragoieraren datu zehatzak eta gaskoieraren hiztegi historiko bat.

Azkenik, euskalariek *-atu*-ren zabaltzea aipatu dute behin eta berriz, baina ikusi dugun bezala, ekialdeko testuetan bada beste hedatze bat aipagarria dena: *-itu*-rena, *-utu* bazterturik. Erran dugun bezala, pentsatzen dugu arrazoin fonetikoak badirela *-itu*-ren hedatzean.

Mailegu horien egokitzapen sintaktikoari buruz, ikusi dugun bezala, aditz mailegatuak perifrastikoki baizik ez litezke joka. Datu horrek eta partizipioen mailegaketa aditz gutiko hizkuntzetan aurkitzeak indartzen du azken urte hauetako hipotesia, aitzin-euskara aditz gutiko hizkuntza zelakoa, alegia.

Bukatzeko, azpimarratu nahi genuke maileguen azterketaren garrantzia hizkuntzaren historiaren argitzeke.

#### 4. BIBLIOGRAFIA

- ANIBARRO, Pedro. *Gueroco guero* (1820). Blanca Urgellen edizioa. Bilbo: Euskaltzaindia, 2001.
- ARIZTI, Maddi. *Amattoren uzta*, 2. arg. Donostia: Elkar, 1982.
- AXULAR, Aguerre, Pedro. *Gero* (1643). Edizio elektronikoa (<http://klasikoak.armiarma.com/>).
- BERIAN, Jose. *Tratazen da nola enzun bear den meza* (1621). Edizio elektronikoa (<http://klasikoak.armiarma.com/>).
- COROMINAS, J., & PASCUAL, J. A. *Diccionario crítico e etimológico castellano e hispánico*. Madrid: Gredos, 1984.
- DUVOISIN, Jean-Pierre. *Bible Saindua* [1859-65]. Faksimilearen edizioa. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1973.
- EGIATEGI, Joseph. *Filosofo Huskaldunaren ekheia* (1785). T. Peillenen edizioa. Bilbo: Euskaltzaindia, 1785.
- ETXEBERRI, Joanes (Ziburukoa). *J. Manual debozionezkoa* 1627. Edizio elektronikoa (<http://klasikoak.armiarma.com/>).
- ETXEPARE, Bernat. *Linguae vasconum primitiae* (1545). Patxi Altunaren edizioa. Bilbo: Mensajero, 1987.
- GARCIA de DIEGO, Vicente. *Gramática histórica española*, 3. arg. Madrid: Gredos, 1981.
- HAASSE, Martin. *Sprachkontakt und Sprachwandel im Baskenland: die Einflüsse des Gaskognischen und Französischen auf das Baskische*. Hamburg: Hlemut Buske, 1981.
- HARRIS, Alice, & CAMPBELL, Lyle. *Historical syntax in cross-linguistic perspective*, Cambridge: Cambridge University Press, 1995.
- HARITSCHELHAR, Jean. *L'œuvre poétique de Pierre Topet Etxahun*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1970.
- HUALDE, José Ignacio. "Phonology". In: *Grammar of Basque* J.I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.). New York: Mouton de Gruyter, 2003; 15-71.
- HUALDE MAIO, Pedro Prudencio. *Gore Jainaren Ebanjelio Saindua* (1855). Edizio elektronikoa (<http://klasikoak.armiarma.com/>).
- IDO, Shinji. "Why borrow verbs when you can borrow participles?: Turkic participles in the Iranian languages". Amsterdameko Unibertsitatea, 2006ko ekainak 8-10, esku orria, 2006.
- KAPANAGA, OTXOA, Martin. *Dotrinea* (1656). Edizio elektronikoa (<http://klasikoak.armiarma.com/>).
- KARDABERAZ, Agustin. *Ejercicioak* (1661). Faksimilearen edizioa. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1974.
- LHANDE, Pierre. *Dictionnaire basque-français et français-basque: dialectes labourdin, bas-navarrais et souletin*. Paris: Gabriel Beauchesne, 1926.
- LARDIZABAL, Francisco Ignacio. *Testamentu Berriko Kondaira* (1855). Blanca Urgellen edizioa. Euskal Editoreen Elkarte, 1998.
- LARRASQUET, Jean. *Le basque de la Basse-Soule Orientale*. Paris: C. Klincksieck, 1939.

Mounole, C.: Aditzaren mailegaketa euskararen diakronian: prozesu morfonologiko eta sintaktikoak

- LAURENT, Richard. *Past participles from Latin to Romance*. Berkeley-Los Angeles: University of California Press, 1999.
- LAZARRAGA, J., Perez de. *Eskuizkribua* (1666). Iñigo Landaren edizio elektronikoa. (<http://klasikoak.armiarma.com/>).
- LEIZARRAGA, Ioannes. *I. Leizarragas baskische Bücher von 1571 (Neues Testament, Kalender und Abc)*. Th. Linschmann & H. Schuchardt (arg.). 2. arg. Bilbao: Euskaltzaindia, 1990.
- LIZARRAGA, Joakin, 1777. 'Sermoiak'. R. M. Pagolaren edizioa. Deustuko Ubibertsitatea / Eusko Jaurlaritzza, (2004).
- MATERRE, Estebe. *Dotrina kristiana* (1617). Edizio elektronikoa. (<http://klasikoak.armiarma.com/>).
- MEYER-LUBKE, Wilhem, *Romanisches Etymologisches Wörterbuch*. Heidelberg: Carl Winter Universitätsverlag, 1972.
- MISTRAL, Frédéric. *Lou tresor dou Felibrige ou dictionnaire provençal-français*. 3. arg. Provençale, 2005.
- MITXELENA, Koldo "El elemento latino-románico en la lengua vasca". 2. arg. In: *Palabras y Textos*. Gasteiz: EHU-ko argitalpen zerbitzua, 1987; 195-219.
- , *Fonética histórica vasca*, 3. arg. ASJU-ren gehigarriak IV. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1990.
- MORAVSICK, Edith. "Language contact". In: Greenberg J., Ferguson C. A., Moravcsik, E., (arg.), *Universals of Human Language* 1. Stanford: Stanford University Press, 1978; 93-122.
- MOUNOLE, Céline. "Quelques remarques à propos de l'histoire des périphrases basques". In: J. A. Lakarra, J. I. Hualde arg., *Studies on Basque and Historical Linguistics in honor to R. L. Trask –Ikerketak Euskalaritzaz eta Hizkuntzalaritza Historikoaz. Larry Trasken Oroitzapenetan*, 2006; 725-740.
- "Euskarazko perfektuzko perifrasiaren sorreraz". *Eskuizkribua*, 2007a.
- "Sintaxia diakronikoa eta aditz multzoaren garapena: inperfektibozko perifrasiaren sorreraz". Inprentan, 2007b.
- OIHENART, Arnaud. *Les proverbes basques recueillis par le Sr. d'Oihenart, plus les poésies basques du mesme Auteur* (1657) P. Altuna & J. A. Mujikaren edizioa. *Iker* 15, 2003.
- OTXOA ARIN, Jose. *Doktrina kristianaren explikazioa* (1713). Edizio elektronikoa. (<http://klasikoak.armiarma.com/>).
- PALAY, Simin. *Dictionnaire du béarnais et du gascon modernes (Bassin Aquitain)*. Editions du CNRS, 1991.
- PEILLEN, Txomin. *Les emprunts de la langue basque à l'occitan de Gascogne: Etude du dialecte souletin de l'euskara*. Madrid: Universidad Nacional de Educación a Distancia, 1998.
- POUVREAU, Sylvain. *Filotea* (1664). Edizio elektronikoa. (<http://klasikoak.armiarma.com/>).
- ROHLFS, Gerhard. *Le gascon: Etudes de philologie pyrénéenne*. 3. arg. Tübingen: Max Niemeyer Verlag, 1977.

Mounole, C.: Aditzaren mailegaketa euskararen diakronian: prozesu morfonologiko eta sintaktikoak

RONJAT, Jules. *Grammaire historique des parlers provençaux modernes*, 2. arg. Marseille: Slatkine, 1980.

TARTAS, Joan. *Onsa hilzeko bidia* (1666). Edizio elektronikoa. (<http://klasikoak.armiarma.com/>).

—. *Arima penitentearen okupazione debotak* (1672). Edizio elektronikoa. (<http://klasikoak.armiarma.com/>).

THOMASON, Sarah Grey. *Language contact: an introduction*; Washington: Georgetown University Press, 2001.

TRASK, Robert L. *The history of Basque*. Londres, Routledge, 1997.

XAHO, Agustin. *Azti-begia eta beste izkribu zenbait* (1834). Patri Urkizuren edizioa. Donostia: Elkar, 1992.

XURIO, Jean Baptiste. *Jesu-Kristoren imitazioa* (1720). Edizio elektronikoa. (<http://klasikoak.armiarma.com/>).

WOLGEMUTH, Jan. *Towards a typology of verbal borrowing*. Eskuizkribua, 2007.

ZUBIA, Nicolas. *Doktrina kristiana* (1691). Edizio elektronikoa. (<http://klasikoak.armiarma.com/>).